






EKINTZAILE PROIEKTUAK

IZAN EKINTZAILE PROIEKTUA
2025 -2026



UROLA BHI - BHI.2.



TXABALILLAKTAXITOR

TXABALILLAKTAXITOR gazteentzako festa-giroko garraio zerbitzu berritzailea da. Inkestek interes handia erakusten dute, batez ere prezioa egokia bada. Segurtasuna eta dibertsioa uztartzeak proiektua bideragarri egiten du.



STYLEUP

Gure enpresa Styleup izeneko aplikazioa da. Bertan egunerokotasunean zer jantzi behar duen garrantzi handia ematen dien pertsonei eta pertsona zalantzatsuei bideratuta dago. Armairuko arropen argakia igo aplikazioara eta berak egiten du "oufita" zure egunaren arabera.



MAKE IT EASY

Gure enpresa gazte jendeari independizatzeko behar duten laguntza eskaintzeko. Bideo motzen bidez, etxeko lanak egiteko eta gauza berriak egiten ikasteko aplikazioa da. Gainera gaitasun propioak publikatu ahal izateko ere balio du.



UROLA BHI - BHI.2.



XARMANT

Xarmant estetika zentroa da eta Zestoan kokaturik egongo da. Denboraldi baterako tatuajeak, depilazioa, azkazalak, bekainen depilazioa, betileak egiteko zerbitzua eskaintzen dugu. Bestalde bertako produktuen eskaintza ere izango dugu estetika arloan.



HIRU LORE

Gure enpresa Hiru Lore da, ospakizunak antolatzeke sortu dugu honako enpresa hau, bezero bakoitzari bere gustuen eta ahalbideen arabera antolatuko diogu eskatutakoa.



EKOGIRO

Ekogiro-ren jarduera nagusia hainbat objekturen alokairua eskaintzea da. Hala nola kanpinerako ekipamendua, kirol materiala, festetarako tresnak... Ekogiroren helburua kontsumoa murriztea, erabilera partekatua sustatzea eta bezeroei aukera ekonomiko eta erraza ematea da.



AZKOITIA BHI - BHI.2.



SHOKAY ASESORIA

Shokay Asesoria enpresa txiki eta ertainei zuzendutako aholkularitzada, kudeaketa tradizionala (zerga, lan eta finantza arloak) eta marketing estrategiko digitala zerbitzu bakar batean uztartzen dituen. Gure bereizgarria hurbiltasunean eta berrikuntzan datza, bezeroei beren kontuak ondo eramaten laguntzeaz gain, merkatuan duten posizionamendua eta digitalizazioa indartzeko neurria egindako planak eskaintzen baitizkiegu. Helburu nagusia tokiko enpresen lehiakortasuna sustatzea eta nazioarteko proiektuorako bidea erraztea da, betiere gizarte-erantzukizuna eta gardentasuna oinarri hartuta.



LOOK MY NOTEBOOK

Gure proiektua ikastetetan laguntzeko plataforma digital bat da. Bertan, ikasleek apunteak, lanak eta bideo azalpenak izango dituzte edozein mailatarako. Eduki gehiena euskaraz egongo da, eta plataforma erabiltzeko harpidetza bat ordaindu beharko da. Gure negozioaren helburua kalitatezko apunte eta laburpen egokiak eskaintzea da, ikasleek erraztasunez ulertzeko edukiak.



NATZ ERAIKUNTZAK

Natz enpresak etxebizitzak, lokalak eta bestelako eraikinak erosi, garatu eta eraikitzea du helburu. Horrez gain, inmobiliaria sail propioa dugu, gure proiektuak eta berreraikitako eraikinak salgai edo alokairuan eskaintzeko, bezeroei zerbitzu fidagarria emanez.

IRAURGI - BHI. 1.



REMINISCE VR

Reminisce VR-k oroitzapenak betirako gordetzen ditu, AI bidez ahanzturari aurre eginez eta ongizate terapeutikoa zein familia-ondare emozionala bermatzeko murgiltze-esperientzia paregabea eskainiz.



IZPI TABERNA

Izpi taberna bat da, non karaoke-a egiteko gunea ere izango den. Taberna honetan gau-tematikoak eta urtebetetzeak ere ospatu ahal izango dira. Proiektu honen helburua, bezeroak parte hartubitartez, esperientzia ederra eta paregabea bizitzea izango litzateke.



SNACKLAB


SnackLab postre bereziak erosteko eta jateko tokia izango da. Azpeitiko erdigunean kokatuko da eta herritar guztiek izango dute bertako postre desberdinak probatzeko aukera.

IRAURGI - BHI. 1.



GAROA LIBURUDENDA

Garoa liburudenda-kafetegia da; kultura eta ostalaritzauztartuz, irakurzaletasuna eta komunitateasustatzenditu giro lasai, profesional eta hurbileko espazioberritzaile eta bideragarri baten bitartez.



EKINTZAILEEN BISITAK ETA LAN SAIOAK



